HAL
open science

Noms basques des plantes, champignons et animaux d'Irati - Iratiko landare, onddo eta ihizien izenak euskaraz

Jean-Baptiste Orpustan

To cite this version:

Jean-Baptiste Orpustan. Noms basques des plantes, champignons et animaux d'Irati - Iratiko landare, onddo eta ihizien izenak euskaraz : (Essai de lexicographie basque). Bulletin du Musée Basque, 2006, 168. artxibo-00082184

HAL Id: artxibo-00082184

https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00082184

Submitted on 27 Jun 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Noms basques des plantes, champignons et animaux d'Irati
Iratiko landare, onddo eta ihizien izenak euskaraz
(Essai de lexicographie basque)

par Jean-Baptiste Orpustan

Bref avant-propos

Voici quelques années il me fut demandé "en catastrophe" de faire une traduction pour la version en langue basque de *Mon cahier d'Irati* (Atlantica 2002) de Henri Laquet-Fiau. Cette version basque n'ayant pas été publiée en définitive, malgré un travail effectué "en urgence" et dans le temps imparti de quinze jours, mais la seule version française, le lecteur et l'amateur de lexicographie basque en trouveront ici un extrait. Il a été réduit à la seule liste des arbres, plantes, champignons, animaux et leur rapide descriptif tels que l'auteur les a présentés au fil de son ouvrage, pour accompagner les superbes photographies prises sur le terrain. En annexes, ont été ajoutées la traduction basque du lexique technique de l'arbre et de la forêt, et la traduction française des toponymes d'Irati.

Les noms des plantes et arbres principaux existent depuis très longtemps en basque, créés sans doute pour la plupart bien avant l'arrivée des langues indo-européennes et du gaulois ou du latin en particulier, qui n'ont servi, pour les essences majeures, et dans l'état actuel des connaissances étymologiques sur le lexique basque, que pour le hêtre et le châtaignier (absent d'Irati), les derniers arrivés, des millénaires et des millénaires après la longue glaciation qui s'achève vers -11.000 ans. Ceux des plantes mineures particulières, et surtout des champignons, sont pour la plupart ou inconnus ou inusités, sinon parfois en décalque pur et simple des noms latins ou romans. C'est ce décalque, dont a usé et abusé en général le basque depuis les ouvrages anciens jusqu'à aujourd'hui, que la traduction qui en est donnée ici s'efforce d'éviter, sauf impossibilité pour les noms faits sur des noms de personnes, ou les romanismes dont l'usage ancien est bien établi. Car il s'est parfois imposé sans recours, et depuis longtemps, par exemple pour le nom général du "champignon" *onddo*, héritier du *fungu* latin par l'intermédiaire du castillan *hongo*, ou pour *landare* "plante". Le basque y a seulement apporté, après la disparition de la labio-dentale initiale du latin étrangère à sa phonologie que le mot castillan ancien avait, pour la même raison, déjà réduite à l'aspiration, ses marques propres: changement d'occlusive et palatalisation au premier, élimination du groupe *pl-* (*muta cum liquida*) au second (*plantare*). Hors des mots d'usage ancien, propres au basque ou adaptés comme ceux-là du latin ou du roman, la plus grande partie du vocabulaire spécifique utilisé, botanique ou autre, demandait à être traduite en conservant au plus près le sens des noms scientifiques, en conformité avec les caractères visibles des objets décrits, mais aussi avec les traits phono-morphologiques propres au lexique basque, avec certaines particularités du domaine dialectal, entre souletin et bas-navarrais cizain.

Ces traits dialectaux, consonnes traditionnellement aspirées comprises, sont indispensables à qui veut réellement "entendre" et pas seulement lire, par exemple, la

magnifique liste des toponymes d'Irati, dont le fameux *Orhy* des proverbes (*Orhiko xoria Orhin laket*), dont les racines, comme celles des arbres du lieu dans la terre, plongent dans un très long passé d'activités pastorales, forestières et d'échanges entre plaine et montagne. Le lexique proprement dit est précédé, en première rubrique, de la description topographique du site traduit littéralement du texte français de l'auteur, avec les toponymes qui le jalonnent, et dont l'intérêt propre, du point de vue linguistique et étymologique aussi bien que descriptif, est bien réél pour la plupart d'entre eux.

Les noms sont donnés non par listes alphabétiques, mais dans l'ordre où ils sont dans l'ouvrage cité, auquel on pourra ainsi se reporter.

1. Iratiko leku-izenak (Les toponymes d'Irati)

1a. Mendiak (Les monts)

Goratasun nagusia **Xardeka-Gaña** da 1555 metretan, eta oihanez bertze **Bizkartze** 1656-tan; aphalena **Iratia**ren eta **Errekidorr**aren elgarretaratzetan, mugarri 213-an, 932 metretan.

Eremu oihandua eta alhagiak untzigune batean daude, ipharretik **Burdinkurutxeta**ko lepoak eta **Eskaler**en hegiak mugaturik; lepotik harat, **Iraizabaleta**tik hego aldera, **Bagargi**, **Mehatze**, **Zenzibil**, **Tarta** iraganez, **Orhi**ko azpian mendebalerat abiatzeko.

Hortik, **Jauregizarr**eko lepoa batzen da, jauste baten ondotik **Errekidorr**aren hatzemaiteko eta **Irati** erreka edo **Urbeltx**erat heltzeko. Leku hortarik, ur-erreka hori iraganez ipharrera, **Ahunzpide**ko (izena zuzen baitu) hegi harritsuaren oinera joaiten da. Beheretik, 940 metra inguruko goratan, malda askori goiti joan beharko da, atheka batekin 1384 metretan, **Orraate**ko lepora heltzeko.

Ipharrerat itzultzea **Okhabe** azpitik iraganez egiten da **Zurzai** aldera sartzeko eta bide-inguru andana baten ondotik Burdinkurutxetako lepora berriz joaiten.

1b. Urak (Les eaux)

Ainitz lekutan bezala, lekuko landaretze nagusiak, orai "iratzea" diogun lehenagoko "irak", emana dauko izena aspaldidanik (1140 *montis irati*) mendiari, eta hunek oihana ipharretik hegora iragaiten duen lats edo ur-errekari: ***Iratia***, erran nahi baita "iraz estalia".

Iratiaren ithurriak badira ainitz, handienak sortaldean: **Iratzabaleta**, **Xardeka**, **Zarzagoiti**-koak; ipharretik **Burdinkurutxeta**-koa eta sartaldetik **Zurzai**-koa. Untzigune hortan, Iratia hogei-ta-hamabortz uhaitz nagusiek hazten dute.

Lekua inguratzen duten mendiak Atlantikatik aski hurbil dira eta itsasoko eraginez baliatzeko lehenbizikoak. Hortakotz, heze nasaia (1800 eta 2000 mm artean urtekal) zuhatz-landaretzearen alde da eta bereziki phagoaren.

Aitzinean "Mediterraneako alderdia" aipatu da, xori hegalez hiruretan hogei km badirelarik Atlantikarano.

Ipharrean Burdinkurutxetako lepotik, Bagargi sortaldean ihiziko lepho guziekin eta Zurzaira sartaldean, hor den ur guzia badoa ixurtzera Nabarran **Irabeko aintzira** edo "Pantano de Irabia"-ra.

128 hektara-ko ur-erreten hori badoa bere uren hustera "**rio Irati**" delakoan **Zangoza**-rano eta **Aragona**-ra heltzeko.

Azken hau hegoalderat aitzinatzen da, **Ibero** edo **Ebro**-ra bururatzeko, hunek, Espainiako zati bat iraganik, Mediterranea batzen baitu **Cap Tortosa** delakoan.

Aro aldatzearen gertatzea ezagun daiteke haize hegotik.

Atlantikako alderdiak, ala **Donibane-Garazi/Mendibe**, ala **Maule/Larrañe**, batzuetan eurixka eta lanho-pean dira, Iratin iguzkia errege delarik.

Ordu hartan behar da oihanaren hegietarik batera joan itsaso handiaren eta haize hegoaren arteko guduari beha egoiteko.

Neguan, elhurte onetan, ithurri guzien erresalbuak eta hazkurria lagunduak dira elhurren emeki urtzeaz iphar ixuri-aldetan.

Hego ixuri-aldeak, hek, laster garbitzen ditu alde 'ta izen bereko haizearen hats izarikoak.

Ipharretik datozen eta Nabarran aintzira hazten duten bi ur nagusiak hauk dira:

- **Iratia**, **Urbeltxa** diotena lapitz beltzez duen ohatzea ilhuna baita;
- **Ibarrondoa** edo **Urxuria**, hura, gisu-harri argietan doa.

Ezta ahazteko, ezpaita guti, aintzira bere goi-aldean batzen duten **Egurgi**, **Kontraxaro** eta **Artxilondo**-ko urek ekartzen daukotena.

Azken hau bezala, ipharraldean dauden aintzirak eztira naturalak. Lur-zabaltzeko tresna handiekin zilhatuak dira:

- 1968-69-etan, Zuberoko biak, **Otsalur**ren;
- 1972-an **Irati-sorho**koa Garazin. 1995-ean handitzen zen batean, xipiago bat idekia izan da mendialdera (2). 2002-an berrituak izan behar lukete.

Ura bizi orotako baitezpadakoa da, ihizi, gizaki eta natura guziko. Behar da beraz gauza ezin baliosago hori gerizatu.

2. Iratiko zuhatzak (Les arbres d'Irati)

2a. Phagoa (Le hêtre)

Ixuri-alde garaztar eta zuberotarretan, gehienetan (% 86) aurkitzen den zuhatz, zuhain edo zurzai mota, **phagoa** da (*fagus sylvatica*). Hor den bertze mota bat **izai orrazeduna** (*abies pectinata*) da % 11-rekin; gainerateko % 3-ak urrunago aurkituko diren bertze zuhain mota batzu dira.

Phagoa orstoduna da: orstoak larrazken oroz erortzen dira eta lehen aroan berriz sortzen, *erorkorrak* dira. Aldiz arrexinadunek (izai, leher, zuzi…) orratzak badaduzkate urte osoan, *iraunkor* izendatuak dira. Bizkitartean, erortzen dira ohartu ahal gabean, aitzineko urtean sortuak irauten baitu.

Phagoa itzaleko zuhaina da, landare gazteak urte lehenetan handi baitaitezke zaharragokoen eta bere burasoen orstapean. *Argikoak* deitzen diren zuhainetan (haritz, leher …), iguzki arraien hutsak landaretzetan ekartzen du hauen ezeztatzea.

Phagoa handitasun gehieneko zuhatza da, 40 metretara hel baitaiteke eta 200 edo 250 urte bizi, 2 metra ingurutara heltzeko.

Azala guti lodia du eta leuna, hautsaran, zenbait aldiz zilharreztatua. Errotzea *marratzalea* errana da, erroak lur axalean baititu nahiz gotorrak, eta lurrean hedatzen sartzeko orde, haritzek eta izaiek sartzen dituztelarik (errotze *zuzena*).

Phagoa *urkoia* da, ur ainitz behar duelakotz, mota *idorkoiak* (Mediterrane-aldeko haritzak) deitzen direnek ez bezala, ur eskasa jasaiten dutelakotz. Iratin, lanho eta euri erauntsien usutasuna alde du phagadoiak.

Jakiteko da urak eragin biziki handia badadukala zuhainaren bizian. Gure gorputzean odolak bezala, behar diren gauza guzien garraiatzeko ahala badu.

Lehenik, gertatzen da *irestea*, hau baita lurrean aurkitu uraren sartzea erro eta errokoeri esker. Gero, hor dugu uraren eta gatz mineralen zuhatzaren barnean igaitea *zainkietan* ostodunentzat, eta *zintzurkietan* arrexinadunentzat.

Zuhatza egiazko lantegi ximikako bat da, ezen orstoetan egiten baitira aldamen guziak *klorofilazko hartzea*-ri esker, ura lanho bilakatzen, egunaz *izerdi* egiten iguzkiaren beroari esker. Atheratzen den ur izaria handia da, ehun urteko phago batendako, 50 kilo egunara.

Phagoa *bakarkina* izeneko mota da, ondo berean aurkitzen direlakotz lore arra eta lore emea. Lore horien zabaltzean, haizeari esker, uzten duten hazi-irina arraulzetxoaren hunkitzerat eremana izanen da.

Primadera bururatzerakoan, loratzea eginen da, fruitua, phaga-ezkurra edo *pagatxa*, moldatuko eta uda deno lau *xaramila* dituen *koxko* baten barnean egonen. Zohi-aroan ikus daitezke phagoak, pagatxez estalirik, larrazkeneko margo baten hartzen. Negua baino lehen koxkoa idekiko da edo eroriko, eta fruitu orduan zohitua atheratzerat utziko du.

Leku berean dauden ondoak elgarren sahetsean handitzen dira. Bizitzeko batzuek bertzeren beharrik ez ukanik ere, bilduak diren gune hortan elgarrekin bizi behar dute: hori *mahikidetasuna* da.

Baina naturako lege nagusi baten menpean da bizia, *bizi burkidetza* dena. Hau ari da mail orotan: lurrean ur eta gatz mineralen hatzemaiteko, zein-gehiagoka ari izan behar. Gain-gainean (*kukulatzea*) burkidetza da ere biziarendako baitezpadakoak diren argi eta iguzkiaren haitzemaiteko. Ahulenak menperatuak izanen dira edo ezeztatuko.

Zuhatzak hastapenetik tinkiak izanez, azpiko adarrak ezeztatzen zezteenean argi eskasez, *adartze naturala* da.

2b. Izaia (Le sapin)

Izai orrazeduna (*abies pectinata*) andanaz bigarren mota da Iratin. 45 m goratasunera hel daitekeen arrexinadun bat da; azal leun eta urdin-zilharra arrailduko zako adinarekin eta belztuko. Jakina dena, *orratz* muskerrak iraunkorrak ditu eta motaren ezagun-arazteko erizpide. Alabainan, "orrazedun" izena orratzak adarrean orraze baten moldean lotuak direlakotz emana zako. Gainera, gainaldea musker dirdiratua dute, azpialdea, argiago, bi xerrenda xurailez marratua delarik. Orratzaren *puntta* (*apex*) doi-doia motz eta ozkatua da baina xixtarik gabe (*epizeak* bezala). Izaiaren haziak adarrean zut dagon *morkolean* dira (epizean dilindan delarik). Izai morkola, hazien uztean, barreatzen da eta aldaxkan ezta gelditzen xangarra baizik, *gandera* deitzen dena. Izaiaren *gallurua* edo *kaskoa* zabaltzen da zahartzean (orduan *mahitzen* dela diote), epizeak aldiz gallurua beti izkin daduka.

Errotzea barna du edo zuzen, phagoak ez bezala. Baina hau bezala *herritarra* da Iratin, erran nahi baita lekuan berean agertua. Lurraldean duen egoerak Atlantika alderat Pirenetako mendi gatinan azken lekukoetarik egiten du. Teknikako nolatasunez Pirene-erdialdeko mota berekoak baino ahulagoa da.

Izaia biziki zur ona da eraikuntzako. Erabilia da habegintzan, zurgintzan eta paperreriako ondarkinetan.

2c. Zuhatz zaharrak (Les arbres anciens)

Izariz handiena **haritza** (*quercus pediculata:* "le chêne pédonculé") da, eta zuhain mota horrek duela aspaldi oihana betetzen zuen. Alabainan, *eraikuntza ixtorio-aitzineko*-en ikermenak, *harrespilak* J.K. aitzineko 800-etik 1200-era artekoak baitira, erakusterat eman du haritza erabiltzen zela su egiten gorputzen hauts bilakatzeko zeremonietan. Gauza hori baieztatzen da *zohikaztegietako hazi-errautsen* ikertzetik .

Bertze zuhain ohargarri bat, **agina** da (*taxus baccata*: "l'if"). Agertu den lehenbizikoetarik da, **leheraren** eta **orrearen** ondotik. Ezpada ere goratasun handietara heltzen, gerri ingurua gotorra ukan dezake: 72 dm inguruko bat aurkitua izan da. Agin emeak fruituak ekartzen ditu, erdaraz *"arilles"* izeneko bihi gorri gerezi iduriko batzu. Phozoinduak dira zaldi 'ta gizonentzat. Xori zenbaitek, aldiz, biligarroek, iresten dituzte baina haziak ez egosten; botatzen dituzte, horrela zuhaina barreatzen baita. Aginaren bertute sendakor bat aldaxka berri bakotxaren punttan "baccatine" izeneko ekai baten izaitea da. Hortaz baliatuz, farmaziako lantegi frantses batek xangre edo minbiziari ihardokitzeko erremedio bat moldatua du.

Phagoaz eta izaiaz harat, bada oraino Iratin % 3 bertze motetarik.

Hauen artean, aurkitzen dugu **oihan lehera** edo **pinoa** (*pinus sylvestris*: "le pin sylvestre"): ezagun daiteke ondoaren goran duen margo gorrailetik. Orratzak birazka bilduak ditu, aski labur, 5 zm inguruan. Hotzari beroari bezainbat ihardokitzen duen arrexinaduna da, baina argi betea behar duena.

Urkia (*betula verrucosa*: "le bouleau") goratasun xipiko zuhaina da, bizi iraupen gutikoa. Mendian jiten da, eta lurraren aberastasun behar handirik eztu (horrengatik

erraiten baitzako "leku hutsen betetzalea"). Gauza hori estimatzekoa da, landa baitaiteke oihan ingurumen baten sortzeko bertze zuhain mota batzuek jarri nahi eztutenean. Argia maite du eta biziki ona da egurretako.

Otsa-leizarrak edo **xori udalatzak** (*sorbus aucuparia*: "le sorbier des oiseleurs") larrazkena bere fruitu gorri-biziez airosten du. Zuhatz xipi hori jiten da maldetan, edozein lurretan, harritsuetan ere. Phago eta izaiekin bizi da baina argi betea behar du. Haren fruituak (**udalatzak**: "les sorbes") xoriek maite dituzte. Mindegietan jin-arazia da edergailuko zuhain bezala.

Azkenik aurkitzen da **mendi-zuharra** edo **zubela** (*ulmus muntana*: "l'orme de montagne"), zuhatz handi bat. Eztu oraino aspaldi, ibarretako bere lagunak bezala, *holandresa* izeneko eritasun batek errautsia zuela. Herri hortarik heldu, *onddo-gaitz* (*graphium ulmi*) batek izerdia hedatzetik trabatzen zaukon eta ondoa hil-arazten. Zorionez eritasun horren itzulia orai gelditua da. Bizkitartean mota banakatua da eta ezta ainitzik Iratin.

3. Iratiko landare eta ilhar (Plantes et bruyères d'Irati)

3 1. Landare 'ta lore (Plantes et fleurs)

Landaretze nasaia bada oihan hortan, et ikusteko ordu hoberena ostaro-ekhainetako ilabetea da, gehienik phagadoiaren barnean orstatzeak traba egin eta iguzki arraiak lurrera heltzerat ez utzi baino lehen. Landare bakoitzari badoako lur mota bat. Landareak laguntza baliosak dira lurraren eta hunen osagailuen ezagutzari buruz. Batzuek leku samina laket dute, bertze batzuek gune hezeak edo ere idorrak, barnak edo axalekoak…

Lehenik aurkitzen da **jats** edo **isatsa** (*cytisus scoparius*: "le genêt à balai") lilien mundura gomitatzen gituela. Gisu-harriari ihes egiten du eta azota ekartzen.

Primadera lili (*primula eliator*: "la primevère élevée") edo **ostoizka zutak** hezea maite du eta lur arinak, landare sendagailua da, *sabonkiak* (ura hauntzen duten ekhaiak: "saponines") badaduzkana.

Ihilore, ihilore-iduria (*narcissus pseudo narcissus*: "la jonquille" ou "narcisse") edo **lilipa**: primaderaren ethortzea untsa erakusten du oihanaren zoko zenbait horiz estaliz. Sendagailua da eta goitika egin arazlea.

Ostaza edo **apho-belarra** (*verbascum thapsus*: "faux-bouillon blanc"): errex ohartzen zako duen luzetasunari esker (80 zm-tik 2 metretara). Maite du azota, lur-meta eta bide-mugetan aurkitzen da; baditu sabonkiak.

Sagu-belharra edo **bilorria** (*hieracum sylvaticum*: "l'épervière des bois"): ostarotik urrirano lilitzen da, leku idorretan, eta maite ditu lurr-ustelez aberatsak diren lekuak.

Asta-tipula lilia (*scilla lilio hyacinthus*: "le cille lys jacinthe"): 10/40 zm luzekoa, maite ditu oihaneko leku frexko eta itzaldunak. Tipulak baditu purgatzeko indarrak.

Othea (*ulex europeus*: "l'ajonc d'Europe"): eskualdeko erdaran "touya" diote, hemen ostaro-ekhainetan loratzen da et batzuetan metra bat goratasunera heltzen; orratz xixtakorrez estalia da. Usu errez edo "labakituz" ekhendu nahi lukete, baina debaldetan. Erroetan baditu azota biltzen duten bakteriak.

Buruxka edo **akher-bizarra** (*aruncus vulgaris*: "la barbe de bouc"): ostarotik uztailera lilitzen da, maite ditu lur aberatsak. Hazi arin-arinak biziki errex airatzen dira eta sabonkiak badituzte.

Ebaslea (*lathraea squamaris*: "la clandestine") horrela izendatzen da ezen, klorofilarik gabe, haien gainean bizi den phago eta urritzen erroetan hartzen baitu hazkurria edoskigailueri esker.

Edoskorria edo **zakur-hagina** (*erythronium dens canis*: "l'érythrone dent de chien"): negu azkenean agertzen da, "erythrone dent de chien" erdal-izena *erytros* ("gorria") grekatik hartzen duela eta ere tipulak duen itxuratik. Leku saminetan bizi da.

Orstapeko gorria edo **orstozabala** (*dactylorhiza incarnata*: "l'orchis à feuille ronde")**:** orstoak oinean zabalduak, titarik gabe. Maite ditu hezea, gisukia, lur saminak; aski bekana.

Hautsarria edo **arrausti-belharra** ("le saxifrage"): mota hortako ainitzetarik bat, gisu-harria eta harrokak maite dituena. Izenak, latinez (*saxifraga*) ala euskaraz, "harri hauslea" erran nahi du.

Aztakhardoa (*cirsium lanceolatum*: "le cirse lancéolé"): osto xixtadunak aztaren arakoak ditu; argi betean aurkitzen da, bide 'ta erhauskinetan. Azota seinalatzen du eta burrumbariek eta marmotxek biziki laket dute hazi-irintzearen gatik.

Ehorri xuria (*crataegus monogyna*: "l'aubépine monogyne"): gisu-harria maite duen zuhaxka, ostoak sendagintzako baliatzen zazko; fruituak C bitaminaz aberats.

Adar-urrea (*solidago virgaurea*: "le solidage verge d'or"): izena aldaxken itxuratik emana zako. Mendiko oihanetan aurkitzen da, argigune 'ta lur gisukidunetan.

Azpelarrak (*colchicum automnale*: "le colchique") maite ditu leku hezeak, liliak gauaz eta aro txarretan hesten zazko. Orstoak aldiz etzazko ondoko primaderan baizik agertzen.

Gorostia (*ilex aquifolium*: "le houx"): orstoak dirdiran eta xixtadunak, dituen bihika gorriek badituzte goiti-egiteko eta purgatzeko indarrak.

Idi-mihia (*achium vulgare*: "la vipérine"), bide bazterretan usu dena; izena suge baten mihiaren iduriko zukunen gatik ukana du, eta **suge-mihia** euskaraz ere hobe luke. Landare horrek lorerik eztema bi urtetarik baizik (*biurtekaria*).

Bortu-khardoa (*eryngium bourgati*: "le chardon des Pyrénées"): 20/40 zm neurrikoa da, orstoak gogor eta xixtadun; haren lili eztigaiez aberatsetan erleak loriatzen dira.

Kukubelharra (*digitalis purpurea*, euskaraz *ditare gorria*: "la digitale"), Iratin usu da, ezta aberez hunkia izaiten, pozoina baita. "Digitaline" delako erremedioaren egiteko baliatzen da, biziki erabilia bihotzeko eritasunetan.

Sorgin-baratxuria (*allium ursinum*: "l'ail des ours" erdaraz *hartz-baratxuria*): gune lupeko urez aberatsetan jiten da, baratxuri usain azkar batekin. Odolaren ibiltzea sustatzen du.

Basa-kardabera zangar motza (*carlinum acaulis*: "la carline") soropil idorretan jiten da, lore-koskoak aro hezez arratsetan hesten ditu; zangar guti edo ez.

Giltxurrin-orstoa edo **Gibelkin** *hirur gingiletakoa* (*hepatica nobilis*: "l'hépathique") phagadoian usu da; ostoen itxurak giltxurrina iduri omen du, eta hortakotz "hépatique" (!) izendatua omen erdaraz; noizpait giltxurrinetako eritasunetan erabiltzen zen.

Basarrosa edo **otsolaharra** (*rosa carmina*: "le rosier des chiens" erran nahi baitu euskaraz *zakur arrosa*): ondoa xixtatsu, 2-3 metra gora baditu eta fruituak C bitaminaz aberatsak.

Aihenzuria *(clematis vitalba*: "la clématite"*)*, egiazko aihen bat da 7 metretarano igan daitekeena. Argia behar du eta erlek haren hazi-irina maite dute. Fruituak, larrazkenean ala neguan, ile pilota baten idurikoak ditu.

3 b. Ilharrak (elharrak, aiñharrak) (Les bruyères)

Landare zurdun gisukiari ihesle batzu dira lur zilizadunetan aurkitzen direnak. Oihanean direnean, lur samina seinalatzen dute. Phadagoiko ibilaldietan, ilharrak lurra hartzen badu, inguruan diren phagoak, mehar dira eta gehienetan ez ederrak lurreko samintasunaren gatik. Huna Iratiko laur ilhar edo aiñhar mota. Eztute bakarrik berexkuntza loretik; orstoek ere mugabidea ekartzen dute.

Ilhar kantabriarra edo **Daboekena** (*daboecia cantabrica*: "la daboécie cantabrique"): izena San Daboek, landarea ezagutu zuen Irlandako sainduarenetik du. Bekana da eta gerizatua: ezta Frantzia-Espainiako Pirene aldean baizik aurkitzen edo erdi-mendebalean. Lilitzen den lehenbizikoetarik da ekhainean, badirauela urrietarano.

Ilhar zuria edo **"hautsarana"** (*erica cinerea*: "la bruyère cendrée"). Orsto hertsi batzu ditu hirunaka bilduak; "hautsarana" erraiten zako aldaxka gaztek duten margo hauts koloretik. Uztail-agorriletan lilitzen da bere margo gorri-ubelez alhagia hegal osoak alaitzen dituela. Haren loren eztigaiaz erlek badagite ezti argi-arin bat.

Jats-ilharra edo **Ilharka** (*calluna vulgaris*: "la callune vulgaire fausse bruyère"): erdal izena *kalluno* hitz greka "garbitzea" erran nahi duenari zor dauko, euskal itzulpena bezala. Alabainan, lehenago, jats egiteko baliatzen zen. Hautsaranaren ondotik lilituko da eta larrazkenerano haren lekua hartuko du. Agorril-buruil azkenetan, erle eliak heldu zazko udako beroen ondotik osagarri berritzera. Ilhar hori biziki ezti emailea da.

Ilhar laur-izkinaduna (*erica tetralix*: "la bruyère à quatre angles") horrela izendatua da orstoak zirian lotuak dituen moldetik, laur lerrotan. Zohaztegietan aurkitzen da eta munho bixkarretan (hezearen gatik). Laidakatuz sortzen da, lurra hunkitzen duten adar guziak errotzen baitira landare berriak emanez. Loreak baditu uda guzian.

4. Onddoak (Les champignons)

Onddo handiak ("les champignons supérieurs"): zangoa eta burua badituzte (onddo zangarduna, ezkataduna, lekaxina), burua izanez hazi-egilea.

Onddo xeheak ("les champignons inferieurs"): burugabeak, hazi-egile ezin xipiagoekin, horrela *penicillium* izenekoa (gasna egiteko).

Handietan, haziak (landaretan bihiak bezala) emaiten du sortzean izpika ttipi-ttipi bat bertze bat baturik, hari lotzen dena. Guziak *mycelium* izena du latinez. Izpika andana batek elgarretaraturik pilota batean emanen du onddoa.

Onddoek bizitzeko klorofilarik ezpaitute, biziko dira izaite (ihizi ala landare) bizi ala hil batzuekin.

Badira ostatzalearen eta egoiliarraren artean bizi molde ezberdinak:

Ondarkinez bizitzea ("le saprophytisme"): onddoa hazten da landare (orsto, adar) edo ihizi gai (gorotz) hilez. Zuhatz bizietan berdin, onddo-inguratzalea erroer lotzen zaie eta ostatzalea hilarazten du (erro-usteldura). Hiltzale izaiteaz bertzalde, ondarkinez bizi direnek oihaneko ondarkin guzien (orsto, adar, errondo …) berrerabiltzea egiten dute.

Bizkarkingoa ("le parasitisme") edo bertzeren gain bizitzea: ondarkinez bizi direnen aurka (onddo-inguratzalea salbu), *onddo-bizkarkin* batzu lotzen dira izaite bizi baina zauriz ala eritasunez ahuldu batzueri.

Elgar-bizitzea edo *bizikidetza* ("la symbiose"): ostatzalea (landare ala zuhatz) eta onddoa bizikide dira. Erroen bidez, egiten da gatz mineral, azota eta ur ordaintzea eta elgarrekin bizitze ona. Zuhatzak emaiten ditu bere gaiak eta onddoari lurreko ura, azota eta gatz mineralak itzultzen.

Jateko arauak emanak dira hizki hauen bidez:

J = jateko ona

EJ = jateko ez onetarik pozoindu edo lanjerosetarano.

4a. Onddo zangardunak (Les bolets)

Euskal-Herrian, onddo egiazko edo zangarduna (hortakotz erdaraz "cèpe" diote) estimatuenetarik bat da. Aski da ikustea, larrazkenean eta bereziki asteburuan, bilatzalea metan Iratiko orstatze-pean.

Onddo beltxa edo **burubeltxa** (*boletus æreus*: "le bolet bronzé, tête de nègre") barnez biziki tinkia; buru edo xapela biribila du eta koloreduna, orsto zimelekin nahasarazten baitu. Zangar lodia du eta phago-pean jiten da. ***J.***

Izaipeko onddoak ("le cèpe sous sapin") leheretako onddoaren idurikoak dira, ttipiak, etzaie berehala ohartzen. Estaltzen dituzten izai orratzak baztertu-eta, agertzen dira xampaña buxunak iduri. ***J.***

Leheretako onddoak (*boletus pinophilus*: "le cèpe des pins"): oihan-leher azpietan, barne zuria tinkia du, Bordeleko onddoari hurbil daiteke. ***J.***

Onddo latza (*suillus granulatus*: "le bolet granuleux"): duen xapel hori-beltxarana lekatua da; bada nasai leher oihanen azpian. ***J***, baina ekhendu behar zako axala, kharatsa baitu.

Uda-onddoa (*boletus æstivales*: "le cèpe d'été") edo **papuna** lekuko hizkuntzan: uztaila danik jiten edo zenbaitetan lehenago, udako zareak betetzen dituela. Adinarekin har-joa izaiten da. ***J.***

Zangar gorria (*boletus calopus*: "le bolet à beau pied"): xapela zuritik ilhunerano alda daiteke. Zangarra beherean gorria du. Barnea airera urdintzen zako. ***EJ*** biziki kharatsa baita.

4 b. Buruzabalak edo **"Amanitak" (Les amanites)**

Uli-amanita (*amanita muscaria*: "l'amanite tue-mouches"), horrela izendatua onddo hori xixtatzen duten uliak lozorrotan erortzen baitira (baina atzartzen, hek!); biribila hatsarrean, xapela bere pikorta zuriekin zabaltzen zako adinarekin. Multzoka eta inguruka aurkitzen da. ***EJ*** = pozoindua.

Buruzabal untziduna (*amanita vaginata*: "l'amanite engaînée") edo **kukuma** (erdaraz ere "la grisette": *urdintxa*), xapela 8 zm-etarano marratua, zangoa mehar eta luze du. ***J*** eta ***EJ*** = jatekoa untsa egosirik, pozoindua gordinik.

Buruzabal hori-gorria (*amanita fulva*: "l'amanite fauve"): untzidunaren berezitasun berak, xapela iranja kolore.

Buruzabal gorrikorra edo **arno-iduria** (*amanita rubescens*: "l'amanite rougissante ou vineuse"): izena xapelaren margo gorrailetik emana zako, zangoak badu erhaztun marratu eta iraunkor bat. ***EJ*** eta ***J*** = gordinik pozoina, xapela untsa egosirik jateko ona du.

Lehoin-nabar amanita (*amanita pantherina*: "l'amanite panthère"): xapela urdin-beltzaran zuriz titatua. Orstodunen azpian aurkitzen da, arrexinadunetan bekan. ***EJ*** = lanjerosa ere.

Gorringoa (*amanita cæsarea*: "l'amanite des Césars" ou "l'oronge"): erdal-izena heldu zako Erromako armadek, onddo hori biziki maitez, eskualde hauen jabe egon zirenean ekarri zutenetik. (Euskarakoa ttipian duen arraultze itxuratik). Ohiki ezta haritz eta gaztain azpian baizik jiten. "Amaniten" motatik baita, hemen ezarri nahi ukan dut. Jateko onddo hoberenetarik bat da, gordinik jan daitekeena. ***J.***

4 c. Bertze jangai batzu (Autres comestibles)

Gorozkoi ileduna (*coprinus comatus*: "le coprin chevelu"): mugetan izaiten da, gazterik jatekoa ur beltza (xerretako margoa) egin duen baino lehen. ***J*** xapela bakarrik.

Lekaxina edo **xixa horia** (*cantharellus cibarius*: "la girolle"): xapela hori antonadarraren moldean beheiti, zangoa ginarri, phago eta izai-pean. ***J*** biziki usain onekoa, onddo hoberenetarik.

Ezkatadun zuta (*lepiota procera*: "la coulemelle"): batzuetan 35-40 zm-etarano gora, ezagungarria xapelaren erdian duen hanturatik. Erhaztun batekilako zangoa eztu biziki ona. ***J*** xapelak urraren gostua du.

Xapel-itzuli iranja-kolorea (*aleuria aurantia*: "la pezize orangée"): ez hain handia kopa baten arakoa, zangorik gabe, bidexketan aurkitzen da. ***J*** jan daiteke gordinik ere.

Xapel-itzuli kattalin-gorria (*sarcoscypha coccinea*: "la pezize coccinée"): kopa ara berekoa baina 2 zm iguruko zangoarekin, neguan eta primaderan jiten da lurrean diren adarkietan. ***J*** bien artekoa.

Ezkatadun zimurra (*rozites caperata*: "la pholiote ridée"): xapelean zimurrekin, orstodunen eta arrexinadunen azpian aurkitzen da larrazkenean eta mendian, zangoa iletsu. ***J*** ona baina zenbaitetan harduna; zangoa botatzeko.

4 d. Bertze bekan batzu (Autres rares)

Zango urdina (*lepista nuda*: "le pied bleu"): hastapeneko margo ubela arintzen zako demborarekin; agertzea larrazken eta negu-hastean, epizea azpian aurkitua izana da Iratin. ***J*** batzuetan bipher-beltx usainarekin.

Izarriduri hezeneurlea (*astræus hygrometricus*: "l'astrée hygrométrique"): izar moldean 6-10 arteko adarrekin aro idorrez biltzen direnak , lur saminetan. ***EJ.***

Xapel-itzuli koronaduna (*sarcosphæra coronaria*:): mota hortakoa lehenik lupean da, eta gero idekitzen borobil zabaletan. Mugetan eta bide bazterretan. ***EJ*** untsa egosirik ezpada.

Kukurusta iduria edo "**Archerena"** (*anthurus archeri*: "l'anthurus d'Archer"): Auztraliatik etorria da eta 14-18-ko gerlan ekarria omen (soldadoen zaldiekin). Lehenik arroltze bat da, gero 4 edo 7 adar hedatzen dira izar aran. Usain gaixtoa du. ***EJ.***

Gortinari erdi-odoltsua edo **kanela** (*cortinarius semisanguineus* edo *cinnanomeus*: "le cortinaire semi sanguin ou la canelle"): multzoka aurkitzen da goroldio edo errondo usteletan. ***EJ*** pozoina da.

Tano lorea (*fuligo sceptica*: "la fleur du tan"): onddoki "mukudunen" motatik da, molde bitxietako landaretze batzu "mutzidura" edo urdinkinen idurikoak. Landare bizkarkin batzu dira. ***EJ.***

4 e. Zureko onddoak zuhatz eta errondoetan (Les lignicoles sur arbres et souches)

Izpika listun mulkatua (*hypholoma fasciculare*: "l'hypholome en touffes"): zuhaitz orstodunen edo arrexinadunen errondo eihartuetan egoiten da. ***EJ*** : pozoina.

Supizteko onddoa edo **ardaia** (*fomes fomantarius*: "l'amadouvier"): zaldi hatz baten itxura du, eta zuhatza eihartu ondoan irauten. ***EJ***. Idorraraziz supizkailua egiten zen haren barne haritsuaz.

Urkiko xilotsua (*piptoporus betulinus*: "le polypore du bouleau"): zuhainari lotua hantura batetik; adinarekin arrailkatzen da, gehienik urkietan. ***EJ***.

Xilotsu sofre kolorea (*griphola sulfurea*: "le polypore soufré"): usteldura biribilak emaiten ditu eta 30 zm-etarano ukan dezake; lehenago oihalendako thindu horia atheratzen zaukoten. ***EJ.***

Gorozkoi ihaurria (*coprinus disseminatus*: "le coprin disséminé"): 1,5 zm-ko xapel xipi batekin, onddo hauskor hori metan bildua aurkitzen da usteltzen ari diren errondo eta zuretan. ***EJ.***

Inguratzale ezti-kolorea (*armillia meliea*: "l'armillaire couleur de miel"): izena xapelaren margotik du. Erroer eta ondoari azkarki lotzen zaien bizkarkina da, usteldurak eraginez. Lurrean erroetarik heda daiteke. ***EJ.***

4 f. Mazokarakoak eta bertze (Clavaires et autres)

Xapelmakur aurdikia (*lepista inversa*: "le clitocybe renversé"): xapela antonadarraren moldean zilatua du azpian xerra tinki-tinki batzuekin. Arrexinadunen azpian multzo handitan jiten da. ***J*** salbu zangar haritsua.

Mazokarako adarduna (*clavaria corniculata*: "la clavaire corniculée"): orein adarren egite badu. Bere margo hori bizitik ohartzen zako. ***EJ.***

Mazokarako kukurustaduna (*clavulina cristata*: "la clavaire crêtée): sapar ñimiño baten itxura du, adar zuriak kukurusta xipitan ozkatuak ditu. Lur eta zur usteletan aurkitzen da. ***EJ.***

Mazokarako aza-lorea (*ramaria* ou *clavaria botrytis*: "la clavaire en chou-fleur"): baratzekari baten itxura du, adarren puntak arno-kolore jartzen dira. Zolan aski gotorra da. ***J.*** Barne tinkia gazterik denean jan behar dena urean irekitu-eta. Guardi-eman, purgatzeko bertutea baitu.

Mazokarakoa (*clavariadelphus pistillaris*: "la clavaire en pilon"): mazo baten moldean da et orstodunen azpian aurkitzen, bakarrik edo multzoka. ***J*** baina kharatsa.

4 g. Gorrailak (Les russules)

Gorrail xerra tinkia (*russula heterophylla*: "la russule hétérophylle"): xerrak biziki tinkiak ditu, zangarra labur eta zuria; aro beroetan aurkitzen da phago eta izai azpian; mamia gostu eztikoa. ***J.***

Phaga-gorraila (*russula fageticola*: "la russule du hêtre"): larrazken hastean agertzen da phago azpian; zangarra eta xapela 10 zm-etarano hel daitezke. ***EJ.***

Gorrail osto-zimela (*russula xerampelina*: "la russule feuille morte"): bada mota bat baino gehiago. Larrazkenean jiten da arrexinadun azpietan, xangurru egosi usain batekin. ***J*** bien artekoa.

Gorrail esnegabea (*russula delica*: "la russule sans lait"), xerra zuri lodiekin, esnerik gabe **Esnedunetan** bezala, uda-larrazkenetakoa edozein zuhaztietan. ***J*** baina ez hoberenetarik.

Gorrail olibarana (*russula olivacea*: "la russule olivacée") berdin jiten da mendian, phago eta izai-pean, xapela 20 zm-etarano, gostuz eztia. ***J*** ona jateko.

Gorrail ederra (*russula lepida*: "la russule jolie"): xerrak tinki eta zango gogorra gorraxtatua; orstapean aurkitzen da; mamia gogorra du pheldo usain batekin. ***J*** ez hoberenetarik.

Gorrail gorri-beltza (*russula atropurpurea*: "la russule pourpre") zuhatz guzien azpian, xerrak tinki, mamia gogor. Xapelaren erdia ilhuna du edo beltza. ***EJ*** biziki kharatsa baita.

Gorrail urdinarana edo **ikatzarana** (*russula cyonoxantha*: "la russule charbonnière"), xapela 15 zm-etarano margo hauts-kolore eta berdaatsekin; xerrak tinki eta gogor; phago eta izai azpian aurkitzen dira. ***J*** ona intzaur gostu batekin.

5. Oihaneko ihizi zenbait (Quelques animaux de la forêt)

5 a. Basa-ihiziak (Les animaux dits sauvages)

Sai horaila (*gyps fulvus*: "le vautour fauve") ezta oihanean bizi. 2,50 metra hegaltze duen zori ihiztari hau hor dago uda-alhatze dembora guzian. Haragi hil jateko duen jitearekin, eritasunez ala ixtripuz hil diren ihizi 'ta abere guziez mendia garbitzen du. Umakuntzako, urtarril ondarrean, eztei jantzak eginik negilean, arroltze bakar bat erruten dute eta bi ilabete hurbilez xitatuko.

Badira bi basa-ihizi mota handi Iratiko orstatze-pean:

handiena, **oreina** (*cervus elaphus*: "le cerf") sartua izana da 1956-57-etan; biziki izipera da;

orkatza edo **basahuntza** (*capriolus capriolus*: "le chevreuil").

Zuhatzetako elhur-xoria (*fringilla cœlebs*: "le pinson des arbres") kampo-apairuetako leku inguruetan aurkitzen da ardura ondarkinen jateko; ezta izipera eta duen kantu goxoak gainditzen du bertze xoriena.

Ttorrotta "proyer" (*miliana calandra*: "le bruant proyer") Iratin ohantze egiten duena da eta han bizi.

Sagarroia (*erinaceus europæus*: "le hérisson") igaile ona da; laster ibiltzen da et ontsa igeri. Janaria pikor, fruitu, saturdinez, karakolez … egiten du.

Basagatua (*felix sylvestris*: "le chat sauvage").

Urtzoez guzia oraikotz errana da, eta urtzo-saltsa on baten jateaz ere.

5 b. Ureko edo Ur-hegiko ihizi zenbait

Igel gorraila (*rana temporaria*: "la grenouille rousse"): umakuntzako aroa otsailean du. Hotzari ihardokitzen du eta ezta bekan haren ikustea jokatzen ari. Buztangabea da. Errutea ekhainean egiten da.

Amarrainak (*salmo trutta fario*: "la truite commune") ur hotxa maite du; lekuan egoiliarra da. Mediterrane-aldeko amarrain bat agertu da, Iratiko uraren bidea gibelerat

egiten duela (Mediterraneatik goiti badator Iratira). Biziki janari ona da … gehienik xipienak.

Arrobio aphaindua (*salamandra s. fastuosa*: "la salamandre fastueuse") arrobio titatuetik berexten da bizkarrean dituen marra hori jarraikietarik (bertzeak horia titaka du). Hezea laket du eta ezta bi urtetarik baizik umatzen.

Aphoak (*bufo bufo*: "le crapaud commun") baditu bortz erhi palmadunak; lurrean uzten dituen hatzetan, ezta errex borzkarrenaren ikustea, laburra baitu. Lau oinen hatzak ageri direnean, aitzinekoak barnerat itzuliak dira, gibelekoak zuzen direlarik. Bide-egile handia errun lekuetarat heltzeko; gainerateko demboran bakartiarra da.

6. Zohikaztegiak (Les tourbières)

Duela guti, leku heze horier etzizaien biziki behatzen: oihanik ez, alhagia guti, lurra urez ithoa. Bizkitartean, gunearen orhoita dira, ezen azken hamar milaldietako landaretzearen, aroaldien, baina ere gizonen egintzen ixtorioa ezagutzerat eman dezaketen hatz baliosenak begiratzen baitituzte.

Alabainan, zohikaztegian edukiak eta begiratuak diren hazi-irin geldituen ikertzeari esker berriz erran daiteke zein izan diren landeretzeak jasan dituen aldaketa nagusiak. Ikertze horiek egiten dira eskuzko tresna **xixterlari** batzuen bidez biltzen diren zohikatz xixter batzuetan.

Hormagune inguru biziki zahar baten oinean den Okabeko zohikaztegi ttipiari emana izan den mihaldiari esker, berreman dira Iratiko oihanen ixtorioko 12000 urte. Azken hormaldiaren ondotik aroa berotzen hasi zen lehen aldiko, lehenik **lehera** (mendi pinoa), **orrea** ("le genévrier") eta **urkia** dira jartzen. Lekua hartzen du, duela 10500 urte, **urritzak** ("le coudrier"), nagusi bilhakatzen dela, ordukotz, **zuhar beltz**, **ezki** ("tilleul") zenbait eta berantago **leizar** ("frêne") eta **haltzez** ("aulne" ou "verne") nahasia den **hariztoiarekin** ("chênaie") batean. Azkenik ethorriak **phagoa** eta **izaia** dira, Iratin hedatzen direnak duela "doi-doia" 4500 urte.

Ikerraldi horiek ezagutzerat emaiten dituzte ere aroaldi horietan hor ziren landareak eta mugatzen artzaintzako egintzak, Euskal-Herrian, jakina dena, biziki aspaldikoak eta premiatsuak baitira.

Zohikaztegiko bizia manatzen duen ur hotza atxikia da **aintzi-goroldio** ("sphaignes") delakoeri esker. Goroldio mota horiek ura igan-arazten dute zelula urkoi batzuen saretik, xiriaren inguruan lotuak, zohaztegiaren oinarria baitira. Azpitik eihartzen dira baina gainetik berpizten, bere ondarkinak metatuz eta bertze landarenak sartzen direla **zohikatzaren** oin-oihalaren moldatzean. Hor ari den egintza azkarrak bakterien bizia debekatzen du, eta ekartzen sail guzien emeki usteltzea eta metatzea.

Zohikaztegietako ihizi eta lore berezietan, huna zenbait:

Orsto-gizen arrunta (*pinguicula vulgaris*: "la grassette vulgaire ou commune"): lore-orstoetako urdin-ilhunak uztail erdirano iraunen dauko, hortik ukaiten duela batzuetan "aintzietako brioletaren" izena.

Bertze landare bat, aitzinekoa bezala "haragi-jalea" diotena, hor da ere, baina ezta agorrilean baizik lilitzen: *Rossolis* edo *drosera* diote erdaraz.

Bada, Irau-Artxilondon, bi drosera motaren ezagutzeko zoria: **drosera orsto-biribila** (*drosera rotundifolia*: "le rossolis à feuilles rondes"), eta **drosera artekoa** edo **angelesa** ("la *drosera intermedia* ou *anglica à feuilles plus longues*) orsto luzeagoekin.

Zergatik "haragi-jale" hitza bi landare horiendako? Bizi diren gune hezetan, azota eskas dute; biek bademate leka bat orstoetan et mamutxak biltzen dituzte jateko. Orsto-gizenak hesten ditu orstoak, droserak biltzen dituelarik bere adarxkak gelditua den mamutxaren gainera. Nahiz eztiren hunki behar, erhiak hurbil dezazkozu, ezta gizakientzat irriskurik.

Ekhainean, iguzki denean, Zurzai edo Otsalur aldean, **lihokukularen** (*eriophorum angustifolium*: "la linaigrette") xuriak kotoin landa bat gogoratzen du. 40-60 zm luzeko ziriaren puntan, lihokukuluaren bihiak zeta iletsuzko mottoz inguratzen dira eta kotoin itxura hori emaiten dute.

Iratin, gehienetan zohikaztegiak murruketa (erdaraz "moraines") batzuetan dira, laurden-aroan hor ziren hormategien oinean. Azken hauk Okabe, Artanolatze, Eskaler-hegi, Xardeka ziren mendebaletik sortaldera, eta Bizkartze hegoaldean.

Uztail-agorriletan, **orratxak** ("les libellules") izeneko mamutxa margodunen jantzaldi geldigabeak ikusten dira.

Orratx distiralea (*calopteryx splendens*: "le caloptéryx éclatant") "anddere" ("demoiselle") handienetarik bat da; arrak baditu margo urdinaran batzu, emearenak baino biziagoak. Bertze mamutxak jaten dituzte. Umakuntzako, jakin behar da, adineko baten biziak ezpadu hamabortz egun baino biziki gehiago irauten, urean mamutxaren handitzeak badirauela, bere aldetik, bi urte.

Jokatzea airean egiten du, **Orratx zeru-kolore** (*orthetrum cœrulescens*: "l'orthetrum bleuissant") izenekoak. Gelditu-eta, bakarrik, arrak hegalak aitzinerat emaiten ditu.

Sabel soka-iduri erhaztunduna (*cordulegaster annulatus*: "le cordulegaster annelé"), aski gotorra dena, bakhartarra da eta leku orotan usu. Mendian aurki daiteke, edo nun-nahi leku hezetarik berex.

Ninfa-su-iduria ("la nymphe au corps de feu"), bere lagunari lotua delarik, itzulika ari da zohaztegi gainean.

Orratx burugorri biartekoak (*leucorrhinia dubia*: "la leucorrine douteuse") haren egite badu, baina burua gorria. Emeak arroltzeak erruten ditu airean: sabelaz ura hunkitzen duelarik, erortzen dira ureko landaretara edo uraren zolara.

Annexes

1. Erdal-hiztegi berezia euskaraz *(Glossaire français spécifique traduit et expliqué en basque)*

Acaule: "landare zirigabe" edo "zangargabe".

Acidiphile: "saminkoi", lur saminetan laket dena.

Aiguille: "orratz", arrexinadunen (izai, leher) ostoa.

Alluvion: "lohitze", lats batek utzi dituen ondarkinak.

Anoure: "buztangabe", apho eta igelak adinerat heldurik.

Apex: osto baten "puntta", orratz batena.

Argile: "buztin", ondarrezko gaia, lurtsu, ura sartzera uzten eztuena.

Blanchis edo **flache**: "zur-huskune", zuhaitz baten azalaren ekhentzea aizkora ttipi (mailu) batez hatzaren emaiteko.

Caduque: "erorkor", larrazkenean erortzen eta primaderan berriz agertzen diren orstoez erraiten dena orstodun eta arrexinadun (zuzi, gingko) batzuetan.

Calcaire: "gisu-harri", gisu ikazkiz egina den harria.

Calcicole: "gisukoi", lur gisu-harritsua laket duen landare edo zuhaina.

Carottier: "xixterlari", tresna zilatzale, lur-"xixterrak" hartuz lurraren miatzeko erabiltzen dena.

Chlorophylle: landaren margo musker edo berdea koloregai horrek emana da (onddo, bakteria eta landare zenbaitetan salbu). Klorofilazko hartzea egiten du, ikazkizko haspelaren hartzera eta otzigenaren botatzera baiterama zuhatz eta landaretan.

Commensalisme: "mahikidetza", mota ezberdinek elgarrekin hazkurri bera hartzen dutelarik.

Concurrence vitale: "bizi-burkidetza", landareak ari direnean zein-gehiagoka handitzeko eta bizitzeko.

Cônes: "morkoitzak", morkoiztunen fruituak.

Cônifères: "morkoiztunak", hazi biluzien multzoan sartzen diren landare bihidunen (hala nola leher, izai, epizea) izena.

Coupe: "mozte", zuhatzen aurdikitzen egiten den lana, baina ere hortako derabilaten ara.

Dépressage: "argaltze", hitz tekniko horrek erraiten baitu ereindegi jadanik adineko edo zuhazti gaztetan egiten den argitzeko lana. Lehenago itsas-leherean egiten zen bakarrik, aldiz orai Iratin phagoarekin egiten da.

Dissémination: "ihaurtze" edo "barreatze", hazien eremaitea edo haizeak, edo phizuenentzat xoriek.

Disséminé: "barreatua", landare edo zuhatz mota bekana, baina leku ainitzetan aurkitzen dena.

Ecorce: "azala".

Empreinte: "hatz", oihan-mailuaz egin den ozka, baliatzeko edo begiratzeko den zuhainaren zurean edo oinean.

Engrais vert: “ongarri berde” edo “landare-ongarri”, landarekiek, hala nola lekuan utzi diren zuhain baliatu baten adarrek, ustelduz, lurra ontzen dute. Ongarri naturala da eta ez “ximika”.

Essence: “zuhainki”, oihan hiztegian mota zurduna, oihanean den edozein zuhatz mota, baina ere ingurumenezko edo emaitzazko hitzen araura heldu direnak:

argi-zuhainki: haritz, leher;

itzal-zuhainki: phago, izai;

herr-zuhainki: lekuan berean agertua;

zuhainki arrotz: bertze leku edo herri batetik jina;

zuhainki noble: zur hoberena badematen zuhatz ederrenak, hala nola haritz eta phago ederrenak.

Extraction: “jalgitzea”, oihaneko edozein gaien (zuhatz, harri, onddo) eremaitea.

Flache edo flachis: ikus **blanchis**.

Futaie: “zuhazti” edo “zuhi”: oihaneko zuhatzak ereindegi bere baitakoetarik edo landare gaztetarik jinak direnean;

1) zuhazti berdina: oihaneko zati batean mota bereko zuhatz guziek adin bera dute;

2) zuhazti ezberbina : zatian, adinak eztira berdinak eta adin batek huts egiten du. Iratin gehienetan gertatzen dena.

3) zuhazti baratzetua: adin guziak hor dira ereindegitik zaharrenetarano. Mail ezberdinak nahasiak izan daitezke, ondoz ondo, flokan (zenbait ara), ala handiago guneka (hektara bat baino gehiago). Hori egiten ahal da mendian zuhainki itzalekoekin (phago eta izai), eta mozteak egin arren, ukan daiteke beti lur estalgia.

Grès: “gresa”, lokailu batez nahasirik ziliza eta ondartz irinez egina den ondarkin-harria.

Houppier: “kukula”, zuhatzaren gorena da adar eta aldaxka guziekin, gainetik duela azken zatia, puntta.

Hygrophile: “urkoi”, ura maite duen izaite bizi bat eta hezegunetan bizi dena.

Inventeur (-trice): “agertzale”, gauza bat agertzen edo asmatzen duen jendea.

Lancéolé: “azta-iduri”, azta edo “lantza” baten ara duen orstoa.

Liber: “arte-azala”, zuraren eta azalaren artean izerdi aphailatua eremaiten duten zainki edo zintzurkiez egina.

Ligneux: “zurdun”, zurkia badadukan ziria. Gai hunek “zeluloza”-rekin batean landare zelulen azalak zur bilakatzen ditu.

Marcottage: “adar-errotze”, zuhatz edo landare adar bat lurrean bere baitarik lotzen delarik, eta aldaka-landatzea egiterat uzten.

Martelage: “mailukatze”, mailu hatzaren bidez, salgai (edo batzuetan begiratzeko) diren zuhatzen seinalatzea. Mozte batendako egiten den lanaren izena.

Marteau: "oihan-mailu", aizkora xipi baten idurikoa den tresna (zuhainean huskune egiteko), gibelean haroztegian landu seinale batekin zuhatzean emaiteko.

Mellifère: "eztikor": ezti egiteko erlek derabilaten eztigaiaz aberatsa den landarea.

Palynologie: "hazi-irin jakintza", lurrak daduzkan hazi-irinen ikertzea, huni esker hatzeman den hazi-irina utzi duten landareak hor ziren urtaldia jakin baitaiteke.

Parcelle: "zati", oihan hiztegian, erabiltzeko den eremu bakotxa. Zuzenez, 15-20 ha-koa gehienetan, edo gai naturalez (ur-erreka, hegi …) edo thinduz mugatua. Moldamenean den oihan oro zatikatua da (orr. 50).

Persistant: "iraunkor", zuhatzean urtez irauten duen orstatzeaz erraiten da (gorosti, izai, leher), **erorkorrek** eztirautelarik landare urtaro bat baizik (phago, haritz - arta salbu - , orstodun gehienak eta zuziak).

Peuplement: "landaretze", oihangune mugatu batean jiten diren zuhatz guziak.

Pivotant: "erro zuzenduna", errotzea lurrean zuzen (eta barna) sartzen da.

Pivot: "erro zuzena", lurrean sartzen den erro nagusiaren izena.

Pollen: "hazi-irina", landare loredunen gai arrak diren zukunetarik atheratzen den hazi ezin xeheagoa (margoz horia, mamutxek eta haizeak barreatzen dute).

Résineux: "arrexinadun", arrexina dadukaten eta emaiten duten zainak dituen zura duten zuhatzak.

Sève brute: "izerdi xoila".

Sève élaborée: "izerdi apailatua".

Sphaigne: "aintzi-goroldio", zohikaztegiaren oinarria den aintzietako goroldio bat, emeki ustelduz zohikatza egiten duena.

Sylviculture: "oihangintza", oihanaren lantzeko egiten diren egintzak oro.

Sylvicole: "oihangin", oihangintzari doakona.

Tourbe: "zohikatz", harriki edo gai erregailua landare zenbaiten (hetan aintzi-goroldioen) metatzeaz eta usteltzeaz egiten dena bizi diren leku osoki saminetan.

Traçant: "marratzale", lurrean hedatzen den errotzea (phago, epizea), zuzenaren alderantziz (haritz, izai).

Trachéides (vaisseaux des résineux):"zintzurki", arrexinadunetan izerdia eremaiten dutenak.

Traitement: "lanaldi", oihan baten lantzeko ari diren egintzak oro.

Vaisseaux (des feuillus): "zainkiak", orstodunetan izerdia eremaiten dutenak.

Xérophile: "idorkoi", ingurune bero eta idorrean (Mediterrane aldeko haritzak) bizi eta den ur gutiaz zuhur den landare edo zuhatz baten ezagungarria.

2. Le sens des toponymes d'Irati en français, par ordre alphabétique:

Ahunzpide: "chemin des chèvres".

Artxilondo: "proximité de la pierre trouée".

Bagargi: “clairière des hêtres”.

Bizkartze: “(mont) en forme de dos”.

Burdinkurutxeta: “lieu de la croix de fer”.

Burkidoi: “boulaie”.

Egurgi: “crête (*hegi*) ou extraction (-*gi*) de bois de chauffage (*egur*)”.

“Escaliers (le pic des)”: on pourrait le traduire soit par le calque Eskalerak, soit, mieux, par Mailhegia; mais le nom local, tout différent, serait Hartzburua “la tête d’ours”.

Ibarrondo: “proximité de la plaine” (ou “de la vallée”).

Iraizabaleta: “lieu du plat de la fougeraie”.

Irati: “lieu de fougères”.

Iratisorho: “herbage d’Irati”.

Jauregizar: “vieux manoir” (nom de maison transporté depuis la plaine).

Kontraxaro: “pâture opposée”.

Mehatze: “lieu ou passage étroit”.

Okhabe: “bas d’Okha” (peut-être du latin *auca* “oie”: allusion à un couloir de passage des oiseaux migrateurs, nommant plusieurs monts Oka de la région).

Orhi: probablement dérivé de *orre* (la vibrante est généralement forte lorsqu’elle est dialectalement aspirée), “(mont des) genévriers, genévrière”.

Orraate: réduction probable de *orreaga-athe* “passage (col) du lieu des genévriers”.

Otsalur: “terre des loups”.

Tarta: “chêne(s)-vert(s)”, singulier pris collectivement (forme souletine du commun *arta* “chêne-vert, buisson”).

Urbeltx: “eau noire”.

Urxuri: “eau claire”.

Xardeka: “la fourche”.

Zenzibil: très probable déformation de *zezenibil(tze)* “parcours des taureaux”.

Zurzai: “arbre”, singulier pris collectivement ou pour nommer un sujet remarquable.

Zarzagoiti: a l’air soit d’un collage linguistique avec le castillan *zarza* “ronceraie” et le basque *goiti* “situé en haut”, soit d’une déformation par analogie d’un ancien *tarta-* (voir Tartas), ou même de Zurzai ci-dessus: “haut de la ronceraie”, ou “des buissons” ou “de Zurzai”.

J.-B. Orpustan
janvier 2005

Résumé

Cet article, extrait d'un projet de traduction d'un ouvrage sur la forêt d'Irati de H. Laquet-Fiau, comporte la description des lieux, montagnes et eaux, avec leurs principaux toponymes, la liste et le descriptif des arbres, plantes, fleurs, champignons et animaux avec leurs noms latins et la traduction basque. L'annexe présente la traduction et l'explication du vocabulaire spécifique de la botanique, ainsi que la traduction en français des toponymes basques du lieu.

Laburpen

Artikulu hunek, H. Laquet-Fiau-k Iratiko oihanaz egina duen liburu baten itzulpenerako egin den lan batetik harturik, emaiten ditu Iratiko leku-izenak, mendi eta ur, bere agerbidekin, hango zuhatz, landare, lore, onddo et ihizien zerrenda eta erakuspena, bere latinezko izenekin eta euskarazko itzulpenarekin. Gainera emaiten dira landarekien hiztegi berezia eta erakuspena, eta hango leku izenen erdarazko itzulpena.

Mots- clefs	***Hitz-giltz***
Irati, fougère	*Irati, ira*
animal	*ihizi*
arbre	*zuhatz*
champignon	*onddo*
fleur	*lore*
forêt	*oihan*
plante	*landare*
toponyme	*leku-izen*
Mars	*martxo (epail)*